

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Urrutiko Hizkuntzen Eskola Ofizialak ingeleseko B2aren lehen maila eskainiko du Iruña, Tuter eta Tafallan

Iribas kontseilariak hala eman du aditzera gaur goizean erakunde horrek Azkoienen ireki duen azpiegoitza berrian, eta 120 plaza izango dira That's English programan

Martes, 26 de agosto de 2014

[Nafarroako Urrutiko Hizkuntzen Eskola Ofizialak](#) (EOIDNA) ingeleseko maila aurreratuko (B2.1) lehen urtea eskainiko du datorren ikasturtean, 2014-2015, Iruña, Tuter eta Tafallako instalazioetan. Ikasketa horiek hurrengo ikasturtean osatuko dira, 2015-2016, bigarren urtea abian jarritz (B2.2).

160 plaza eskainiko dira lau taldetan banatuta eta

bakoitzak 40 ikasle hartuko ditu: bi talde Iruñean izango dira, beste bat Tuteran eta azkena Tafallan. Ikasturte honetan matrikulatzeko epea, *That's English* programaren barnean dagoena, irailaren 1ean hasi eta urriaren 1 ean amaituko da. Gogoratu behar da ikasteko metodo honek urrutiko ikasketa (material didaktikoen eta *online* plataforma baten bidez) eta aurrez aurreko tutoretzak konbinatzen dituela.

Hala eman du ezagutzera gaur goizean Hezkuntzako kontseilari José Iribasek Azkoienen, udalerrri horretako EOIDNaren egoitza berriaren aurkezpenean. Bertan ingelese ikasteko 120 plaza eskainiko dira [That's English](#) programaren barnean.

Azkoieneko programa

120 plaza horietako batean matrikulatzeko epea irailaren 1ean hasiko da. Egun horretan informazio-hitzaldi bat izango da, 17:00etan, Azkoieneko kultur etxean, eta urriaren 1ean amaituko da.

Oinarrizko mailetan (A1 eta A2) nahiz ertainean (B1) 40 ikasle osatutako hiru talde eskainiko dira. 16 urtetik gorakoentzako ikastaro hauek, erdiak aurrez aurrekoak izango dira; hala, material didaktikoen eta *online* plataforma baten bidez garatuko dira, eta astean aurrez aurre ordu bat emango da Azkoieneko kultur etxean.

Azkoieneko EOIDNaren azpiegoitza berriaren aurkezpenean zehar,



Iribas kontseilaria Vidorreta alkatearen (erdian) eta Ventura zinegotziaren alboan.

udalerriko alkate M^a José Vidorretak eta Hezkuntzako zinegotzi Rocío Venturak ere parte hartu dute, eta bertan Iribas kontseilariak azpimarratu du hizkuntzen irakaskuntza Nafarroako hainbat puntutara hurbiltzeak zer garrantzi duen edozein herritarrek hori egiteko aukera izan dezan, non bizi den kontuan hartu gabe.

That's English

Azkoienen eskaintzen diren 120 plazak, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak BBC eta TVEren laguntzarekin sustatutako That's English hezkuntza-programaren barnean sartzen dira. Foru Komunitatean Hezkuntza Departamentuak kudeatzen du, Nafarroako Urrutiko Hizkuntzen Eskola Ofizialaren bidez, eta iazko ikasturtean Nafarroan ia 3.000 ikasle izan zituen.

Hasieran EOIDNAk Iruñean duen egoitza nagusian eskaintzen zen programa, Tuteran, Lizarran, Corellan, Donezteben, Zangozan eta Tafallako egoitzetan ematen da orain, eta haiei Azkoiengoa gehitu zaie orain.

Ingeleseko oinarrizko mailako (A1 eta A2) eta ertaineko (B1) tituluak eskuratzeko aukera ematen duten programa ofiziala da. Horretarako, honako hauek ematen dira: material didaktikoak (hiztegiak eta gramatika-liburuak, koadernoak, CD audioa, CD-Rom elkarreragileak, ikastaroko gidak eta DVDn eskuragarri dauden telebista-saioak), *e-learning* plataforma baterako *online* sarbidea material osagarriarekin eta aurrez aurreko tutoretzak.

Azkoienen ere PAI programa dago ikastetxe publikoan 2013-2014 ikasturtetik aurrera, eta baita atal elebiduna ere Ribera del Arga BHIan 2009ko ikasturtetik. Institutu horrek ere ikasleak prestatzen ditu EOIDNArekin duen laguntza-programan ingelesez, frantsesez eta euskaraz. Datorren ikasturtean alemana ere izango da.